

MCERL-K DUEN IKUSPUNTUA.

MCERL-k, Europa mailan, azterketak, gidak, orientabide kurrikularrak, hizkuntza programak... eraikitzeke oinarri batzuk planteatzen ditu. Ikasleek ikasten duten hizkuntza erabiltzera bideratuta, hauek ikasi beharko luketena deskribatzen du modu integral batean, eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren ezagutza zein trebetasunak zehaztuz. Ildo horretatik, marko honek ikasketa buruei, irakasleei, zuzendariei, irakasleen hezitzaileei... ikasleen beharrak asetzera begira, euren lana koordinatzeko eta euren praktiken inguruan hausnartzeko bitarteko egokiak eskaintzen ditu. Izan ere, kulturartekotasun ikuspuntu batetik, hizkuntzen irakaskuntzaren helburua ikaslearen garapen pertsonala eta bere identitatearen garapena bermatzea da, eremu linguistiko zein kultural desberdinei aurre egiteak dakarren aberastasunaren haritik.

Marko honen ikuspuntutik, hizkuntza baten erabiltzaileak eta ikasleak agente sozialak dira gizarte bateko kide izanagatik, non egoera desberdinetan aurrera atera beharreko eginkizun batzuk dituzten, hizkuntzarekin erlazionatuak edo ez. Izan ere, nahiz eta hitz egiteak hizkuntzarekin erlazionatuta egon, ekintza hauek eremu edo egoera soziokultural baten barnean gauzatzen dira.

Norbanakoaren gaitasun orokorrak

Hizkuntzen erabiltzaile zein ikasleen gaitasun orokorren artean ezagutzak, trebetasunak, gaitasun existentziala eta ikasteko gaitasuna barnebiltzen dira.

Ezagutzak esperientziatik edota ikasketa formalago batetik eratorritako jakintzak dira. Giza komunikazio oro munduaren ezagutza partekatu baten menpe dago. Horregatik, talde sozialek partekatutako balore zein sinesmenen ezagutza ezinbestekoa da kulturartekotasun komunikazioa gauzatzeko. Horrez gain, edozein ezagutza barri gure aurrezagutzetara gehitzen da, baina barneratzen dugun hori aurrezagutza horien izaera eta antolaketaren eragina du. Hori dela eta, komunikazioa baldintzatuta dago komunikazio horren partaide direnek aurretiaz barneratuta duten munduaz eta hizkuntza horren ereduez duten adostasunaz. Bigarren hizkuntzen edota atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan sarritan uste da ikasleek jadanik badutela beharrezkoa den munduaren ezagutza nahikoa helburua lortzeko. Hala ere, beti ez da horrela izaten. Munduaren ezagutzaren barne, lekuak, organizazioak, pertsonak, objektua, gertakariak, prozesuak...

sartzen dira. Horregatik da hain garrantzitsua ikasleek hizkuntza ez ezik, hizkuntza horri dagokion edo hizkuntza hori erabiltzen duten herrialdeen berri ere izatea. Ildo beretik, munduaren ezagutzaren barnean hiztun horien komunitate zein gizartearen ezagutza azpimarratu beharra dago, besteak ere garrantzitsuak badira ere, alderdi hau balitekeelako ikasleen aurretiazko esperientzien baitan ezagutu ez izana eta estereotipoengandik distortsionatua egotea.

Trebetasunak prozedurak garatzearekin erlazionatzen da gehiago. Honen barnean, sartu dezakegu aurkeztutako elkarrizketen aurrean eraginkortasunez eta modu egokiz jardutea, egunerokotasunean ezinbestekoak diren ekintzak gauzatzea, ekintza espezializatuak egiteko gaitasuna izatea eta aisialdirako beharrezkoak diren ekintzen gauzatzea. Kulturartekotasun gaitasunetik ere enfokatu daiteke, bere gain, norbanakoaren kultura eta kultura arrotza erlazionatzen jakitea, beste kulturetako pertsonekin komunikatzeko estrategiak garatzea, kultura desberdinen artean bitarteko lez aritzeko borondatea eta estereotipoak gainditzeko gaitasuna batuz.

Gaitasun existentziala ordea, har daiteke auto-irudiarekin eta besteengan dugun ikuspuntuarekin zerikusia duten izaera, jarrera, zein ezaugarri indibidualen gehiketa legez. Gaitasun hauek kulturarekin erlazionatzen dira eta ondorioz, pertzepzioentzako eta kulturartekotasun harremanentzako eremu sentikorrak dira. Beraz, komunikazioa ez da baldintzatzen bakarrik ezagutzengatik, ulermenagatik eta trebetasunengatik, baizik eta izaerarekin erlazionatutako faktore indibidualengatik ere; hala nola, jarrerak, motibazioak, baloreak, sinesmenak eta estilo kognitiboak. Faktore hauek gainera, ekintza komunikatiboetan ez ezik, ikasteko gaitasunean ere eragiten dute zuzenean.

Ikasteko gaitasuna, desberdina dena aurkitzeko edo ezagutzeko alde zuzeneko jarrera bezala har daiteke, desberdintasun hori beste hizkuntza, kultura, pertsona edo ezagutzaren edozein esparru izan daitekeelarik. Nahiz eta kontzeptu hau nahiko orokorra izan edo behintzat ikuspuntu orokor batetik begiratua izan, oso interesgarria da hizkuntzen irakaskuntzari begira. Azken finean, gaitasun honen garapen mailak aurretiaz aipatutako beste gaitasun orokor horiengan eragina izan dezake. Beraz, ikasten jakitea esperientzia berriak behatzea eta bertan parte hartzeko gaitasuna da, honekin batera aurretiazko ezagutzei berriak gehituz edota moldatuz. Hizkuntzarekiko eta horren erabilerarekiko sortzen den atxikimenduak esperientzia berri hauek aberasgarri bezala ikustea ahalbidetzen du.

MCERLk gaitasun hauek gaitasun orokor bezala definitzen dituen arren, Byramek bezala, hainbat autorek kulturartekotasun komunikazio gaitasuna osotzen duten printzipiotzat hartzen dituzte. Izan ere, gaitasun hauekin hiztuna kulturarteko hiztun bihurtzen da besteekin harremana izateko, beste ikuspuntu batzuk onartzeko, eta desberdintasunak baloratzeko gaitasuna garatzen dituelako, hau da, kulturartekotasun komunikazio gaitasuna definitzen duten ezaugarriak garatzen dituelako alegia (Salaberri Ramiro, M. S.-2007).

Gaitasun komunikatiboa

Komunikatzerako orduan, erabiltzaileek aurretiaz aipatutako gaitasun orokor horiez gain, hizkuntzarekin erlazionatuagoa dagoen gaitasun komunikatiboa ere erabiltzen dute. Esan daiteke gaitasun komunikatiboa hiru zutabeen baitan eraikitzen dela: Linguistikoa, soziolinguistikoa eta pragmatikoa.

Sistema linguistikoak oso konplexuak dira eta komunikatzeko beharraren ondorioz, gizarreak bezala, hizkuntzak ere etengabeko garapen bat jasotzen du. Garatu gabe geratu dena ordea, hezkuntzak hizkuntzen inguruko irakaste metodologiak dira, gaur egun orain oso tradizionalak direnak eta aditu askok zalantzan jarri dituztenak. Hala ere, egia da, egoera honi planteatutako irtenbideetatik bat ere ez dagoela orokorrean onartuta. Gaitasun linguistikoan lexikoa, gramatika, semantika, fonologia, ortografia eta ortoepika aurki ditzakegu.

Gaitasun soziolinguistikoak hizkuntza baten erabileraren arau soziokulturalei egiten dio erreferentzia. Alderdi honek, kultura desberdinetako partaideen arteko komunikazio oro baldintzatzen du modu zuzen batean, nahiz eta sarritan ez ohartu. Gaitasun honen baitan adierazgarri sozialak, kortesia arauak, esaerak edota esamoldeak, erregistro desberdinak eta azentua aurkitzen dira.

Gaitasun pragmatikoa ordea, mezuak antolatzeke eta komunikazioa bermatuko duen diskurtsoa egituratzeko gaitasunarekin lotzen da. Honen baitan kohesioa, koherentzia, testu desberdinen identifikazioa, ironia zein parodia aurkitzen dira batik bat.

Gaitasun komunikatibo hauek martxan jartzen dira hizkuntzaren jarduera desberdinen funtzionamenduarekin batera. Alde batetik, jarduera horien artean, ulermena eta adierazpena ditugu, interakziorako biak beharrezkoak direnak. Beste bat beraz, interakzioa da, non gutxienez norbanako biren artean elkarrekintza bat gauzatzen den, adierazpena eta ulermena txandakatuz. Interakzioa ulermena eta adierazpena baino

garrantzitsuagoa dela defenditzen da sarritan, alderdi honek komunikazioan betetzen duen papera kontuan hartuta. Azkenik, bitartekaria dugu, zeinek posible egiten duen berez euren artean komunikatu ezin direnen komunikazioa. Bitartekaritza hortaz, elkarbitza eta integrazio zubitza har daiteke, hizkuntzen erabilerari buruzko hausnarketa bat planteatzen duelako kulturartekotasun ikuspuntu batetik.

Beraz laburbilduz, Marko honek gaitasun eleanitzaren helburu bezala hizkuntza komunikaziora bideratzea ezartzen du, kulturartekotasunezko hartu-eman bat oinarri bezala finkatuz.